

1. Irakaskuntza elebi-eleaniztuna. Kontzeptuak eta plangintzak.

- Irakaskuntza elebidun mota nagusiak ■
 - Murgilketa (inmertsioa) motak
 - Submertsioa: historian zehar eta gaur
 - Mantenuzko elebitasuna: Adibidez, EIB (Educación Intercultural Bilingüe)/Kulturarteko Hezkuntza Elebiduna

 - Zenbait kontzeptu garrantzitsu:
 - Ama hizkuntza (H1) = eskola hizkuntza?
 - Hitzun elebakarraren mitoa
 - Hizkuntza eta elkarreragin sozio-diskurtsiboa
-

Irakaskuntza elebidun motak.

Terminologia

- Elebitasun trantzisionala, bitartekoa, behinbehinekoa.
- Elebitasun gehigarria/kengarria.
- Jatorri hizkuntza gutxituak eta irakaskuntza elebiduna.
- Mantenezko irakaskuntza elebiduna
- Hizkuntza nagusien artekoa
- Etorrinek, migrazio egoerek, eragindako irakaskuntza elebiduna/eleanitza

Irakaskuntza elebidun motak.

Murgilketa motak

- Murgilketa bidezko irakaskuntza elebiduna: edukiak eta hizkuntza bateratuz (bigarren) hizkuntza bat ikasteko metodologia (CLIL)
- Murgilketa goiztiarra / berantiarra
- Murgilketa osoa /atalekoa
- Murgilketa H. gutxituekin / H. nagusiekin
- Kanadako eredua (Genesse, 1987, Lambert & Tucker, 1972)

IDIAZABAL, I. & DOLZ, J. (2015). "Introducción", In GARCIA-AZKOAGA, Ines, IDIAZABAL, ITZIAR (Ed.) (2015) *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe*, Bilbao: EHU.

- MURGILKETA
- Helburua. Hiztun elebidunak
- Irakasleak: elebidunak-
- Erabakia: familiaren araberakoa
- Lehen hizkuntza (H1) kontuan hartzen da
- Bigarren hizkuntzako lorpenak eta H1enak ebaluatzen dira
- H2 ren izaera: gehiketa-
- Gurasoen parte hartzea behar/bilatzen da
- Elebitasunak prestigioa du

- AZPIRATZE SUBMERTSIOA
- Helburua: H2 ikastea
- Irakasleak: elebakarrak
- Erabakia: erakunde politikoak
- H1 ez da kontuan hartzen/ordezkapena
- Ebaluazioa: H2 ren ezjakintasun maila
- H2 ikasteak H1en ordezkapena / kenketa
- Gurasoak ez dira eragile
- Elebitasunak ez du prestigiorik

Eskola bidezko bigarren (n.) hizkuntzaren ikasketa.

- Irakaskuntza elebidunean/eleanitzean zenbait jakin beharreko :
 - Cummins (1979/1983, 2005)
 - Hizkuntzen irakaskuntza bateratua edo elkarosagarritasuna
 - Gaitasun diskurtsiboen transferra (Idiazabal & Larringan 1996,1998, 2000)
 - Atzerritarrek eragindako hizkuntza aniztasuna eta eskola: erronkak eta konponbideak: EVLANG proposamenak


Eskola bidezko bigarren (n.) hizkuntzaren ikasketa.

Cummins (1979, 2005)en ekarpenak:

- Elebidun ezberdinak, eta haien hizkuntza atalase (*umbral*) maila ezberdinen teoria
- Hizkuntzarteko interdependentzia edo elkarmenpekotasunaren teoria
- Hizkuntzarteko transferra: kontzeptu mailakoa, metaezagutzazkoa, idatziari buruzkoa bereziki “literacy”, kontzientzia fonologikoa,

Hezkuntza elebidun-eleanitzaren oinarri psikolinguistiko eta didaktiko orokorrak

1. Cummins (1979) "atalasen teoria"



Hizkuntzarteko eragina, transferra

- *Interference, interlanguage vs transfer, influence* (Kecskes, 2008; Idiazabal & Larringan, 1999, 2004)
- "elle [H2ren jabekuntzak] *utilise tout l'aspect semantique de la langue maternelle*"
(Vygotski 1934/1997: 294)

-
- *"Elle [H2ren ikaskuntzak] permet a l'enfant de concevoir sa langue maternelle comme un cas particulier du systeme linguistique et, par conséquent, lui donne la possibilité de généraliser les phénomènes propres a celle-ci, ce qui signifie aussi prendre conscience de ses propres opérations verbales et les maitriser"*

(Vygotski, 1934/1997: 376)

Hizkuntzen garapen interdependentearen hipotesia:

To the extent that instruction in Lx is effective in promoting proficiency in Lx, transfer of this proficiency to Ly will occur provided there is adequate exposure to Ly (either in school or environment) and adequate motivation to learn Ly

(Cummins 1981)

Hizkuntzartekotasuna (Cummis , 1981; 2005, p.114)

En la medida en que la instrucción en la Lx sea efectiva a la hora de promover la competencia en dicha lengua Lx, la transferencia de esta competencia a la Ly se dará siempre que haya una exposición adecuada a dicha Ly (ya sea en la escuela o en el entorno) y se dé una motivación adecuada para aprender la Ly.





Figura 3. Representación del iceberg doble de la competencia bilingüe. (Surfaces features of L1/L2 = Características superficiales de la L1/L2; Common Underlying Proficiency = Competencia común subyacente).

Baina zer da hizkuntza batetik bestera pasatzen dena?

- Kontzeptuen erainkuntza (semantika), idazketa-irakurketa gaitasunak, kontzientzia fonologikoa eta ahozko ekoizpenaren zenbait alderdi pragmatiko...
- ... eta testu-generoak ekoizteko trebetasun linguistiko-diskurtsibo zehatzak ere bai (Idiazabal & Larringan 1997, 2004; Idiazabal, 2000).

Transferentzia motak (Cummins 2005, p.116)



H2/H3/Hn ikastearen abantailak

- H2aren ikaskuntzak H1ari eragin. H2a ikasteak H1ekiko ezagutza (metahizkuntza) garatu:
 - Hizkuntza formekiko ezagutza garatu.
 - Mintzaira fenomenoekiko ezagutza orokortu.
 - Haurrak ikasten du hizkuntza modu kontzienteagoan eta bere nahierara erabiltzen.

- H2a ikasteari esker haurrak lortzen du ikustea bere lehen hizkuntza beste hizkuntzen artean bat gehiago dela, beste hainbat sistemen artean bat gehiago dela.

- H2a ikasten duenean mintzairari buruz modu orokorrago batean hausnartzen ikasten du, ez bere H1ari hain lotua, eta ondorioz, mintzaira operazioekiko kontzientzia eta kontrola areagotzen duela.

Eskola bidezko bigarren (n.) hizkuntzaren ikasketa.


- 10.3. Irakaskuntza elebi/eleanitzaren ebaluazioa
 - Baker (1993)
 - EIFE programak
 - IVEI-ISEI (2005, 2008)
 - Europako erreferentzia markoa
 - Eskalak (C2, C1, B2, B1, A2, A1)
 - Portofolioa

GAZTELANIA

EIFE 3
2.Maila
1990

	\bar{X}	S
A	119.61	13.69
B	116.93	15.59
D	104.48	20.29

13. irudia
Gaztelaniazko puntuazio orokorra




EIFE 3
2.Maila
1990


EUSKARA







	\bar{X}	S
A	32.23	17.27
B	85.77	27.76
D	120.89	15.53

12. irudia
Euskarazko puntuazio orokorra




11. irudia
Gaztelaniazko proben batezbestekoak EIFE 1 eta EIFE 3n




		CO1	CO2	CO3	EO1	EO2
A-EIFE3		9.43	8.64	5.42	9.35	6.96
A-EIFE1		8.94	7.66	4.66	9.33	6.27
B-EIFE3		9.28	8.25	5.37	9.23	6.72
B-EIFE1		9.23	7.69	4.87	9.18	6.39
D-EIFE3		9.03	7.44	4.98	7.73	5.95
D-EIFE1		8.99	6.55	4.06	7.99	5.68

Euskararen ezagutza adinaren arabera. Euskal Herria, 2001




Euskara B1, B2

8. grafikoa. B1 eta B2 probak: emaitza orokorrak mintzamena gabe hizkuntza ereduaren arabera (B+D ereduetan)




PISA 2003, 2006, 2009


Irakurketa. Emaitzen bilakaera
PISA 2003 - PISA 2006 - PISA 2009.



Euskadiko eta ELGAko emaitzen bilakaera
PISA 2003-2006-2009




Irakurketako konpetentziako emaitzen bilakaera herrien arabera. PISA 2006-2009



PISA: Irakurtzeko konpetentzien emaitzen bilakera Euskadin (2003 -2012)

Irakurtzeko konpetentziako emaitzen bilakera.
PISA 2003 - 2012. Euskadi - OCDE.



PISA 2012. Irakurtzeko gaitasuna Euskadin eta beste herrialdeetan

Ikus IVEI-ISEI (2014) PISA 2012 EUSKADI. Emaitzen txostena eta aldagaien azterketa

62. eta 63. orrialdeetako irudiak.

<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/indexa>

Pisa 2015 eta Ebaluazio Diagnostikoa 2017: Zenbait datu

Kontsulta sarean: <<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest>>

PISA 2015: irakurtzeko kompetentzia


3.2. IRAKURTZEKO KONPETENTZIA

3.2.1. EMAITZA OROKORRAK ETA BILAKAERA

Konpetentzia honetan, esan daiteke, emaitzek lehengoan jarraitzen dutela eta ez dela aldaketarik izan euskal ikasleen konpetentzia mailan. 2015ean eskuratutako puntuazioa 2012koa baino 7 puntu baxuagoa den arren, aldea ez da adierazgarria; izan ere, 2015ean 4,7koa izan da errorea. Aurreko urteetan bai, izan dira alde handiagoak eta hala ere, aldea ez zen estatistikoki adierazgarria; 2003ko eta 2006ko emaitzen artean, adibidez, 10 puntuko aldea zegoen.


2015eko emaitza alderatzen badugu konpetentzia hau ebaluazioaren arlo nagusi izan zen urteko (2009) emaitzarekin, ikus daiteke aldea 3 puntukoa dela eta ez dago alde adierazgarririk bi puntuazioen artean.

3.2.1.a. grafikoa. PISA. Irakurmenako emaitzen bilakaera.




PISA 2015: irakurtzeko konpetentzia

3.2.1.b. grafikoa. PISA. Irakurtzeko konpetentziako emaitzen bilakaera: ELGA-Espainia-Euskadi.



PISA 2015: irakurtzeko konpetentzia

3.2.1.c. grafikoa. PISA. Irakurtzeko konpetentziako emaitzen bilakaera: Euskadi-ELGA-Espainia.




3.2.1.d. grafikoa. PISA 2015. ELGAko herrialdeek Irakurmenean lortutako puntuazioak eta % 95eko konfiantza-tartea populazioaren batez bestekoarentzat.




Pisa2015 : zientzietarako konpetentzia


3.1.1.a. grafikoa. PISA. Zientzietarako konpetentziako emaitzen bilakera.




3.1.1.b. grafikoa. PISA. Zientziatarako kompetentziako emaitzen bilakaera:
Euskadi-ELGA-Espainia.



3.1.1.c. grafikoa. PISA. Zientziatarako kompetentziako emaitzen bilakaera:
Euskadi-ELGA-Espainia.



3.1.1.c. grafikoa. PISA 2015. ELGAko herrialdeetako Zientzietarako kompetentziako batez besteko puntuazioak, populazioaren batez bestekorako % 95eko konfiantza-tartearekin batera



3.3.1.d. grafikoa. PISA 2015. ELGAko herrialdeek Matematikarako kompetentzian lortu dituzten batez besteko puntuazioak eta biztanleriaren batez besterako % 95ean dagoen konfiantza-tartea.




Hausnarketarako galderak

- PISAk neurtzen ditu matematika, zientzietako eta irakurketarako gaitasun edo konpetentziak.
- EAEko PISA datuetan puntuazioaren beherakada eragin duten faktore askotarikoak egon daitezke. Dena den, uste duzu merezi duela hizkuntza eta zientzia eta matematika bezalako arloetan hizkuntzak duen zeregina aztertzea, ikusita EAEko hizkuntz gaitasunak ere beherakada izan dutela? Gogoetarik dakarkizu gai honek?
- Zenbateraino izan dezake zerikusia EAEko ikasleen gehiengoaren H1 gaztelania izatea? Konpara itzazu Espainiako estatuko beste eremuetako datuekin eta haien bilakaerarekin. Erabakiorra dirudi ikaslearen H1 eta eskolako H1 bat etortzea?

Azpikonpetentzien garapenak eta hizkuntzek izan lezakete zerikusirik?

3.1.4. EMAITZAK AZPIKONPETENTZIEN ARABERA

Jarraian, PISAk neurtutako azpieskala guztietan lortutako puntuazioak datoz, eta *Zientzietarako konpetentzian* Euskadiko batez besteko puntuazioa. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, azpikonpetentzia guztiak batez besteko puntuazioaren inguruan daude, ez dago 3 edo 4 puntu baino gehiago urruntzen den bat ere.



Ebaluazio Diagnostikoa 2017 (ISEI-IVEI, 2018:13)

1.1. Zer da Ebaluazio diagnostikoa (ED)?

Ebaluazio diagnostikoa (ED) **oinarrizko konpetentziak** neurtzen dituen azterketa da. Indarrean den curriculumareferentzia gisa hartzen duen arren, ez dago ikastetxe bakoitzean egiten den curriculumaren garapen espezifikoari lotuta.

Ikasleak egoera jakin batzuei eta arlo jakin batzuekin lotutako egoera eta arazoei aurre egiteko dituen ezagutzak aktibatzen eta erabiltzeko duen gaitasuna neurtzea da

- ikastetxeentzat **prestatutzarako eta orientazio gisa balio du** eta familientzat eta hezkuntza-sistamarako informazioa eskaintzen du.

Ebaluazio Diagnostikoaren helburua. Hau da, ezagutzez gain, hauek egiteko gaitasuna duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak modu fidagarrian aukeratzeko eta aplikatzeko, egoera zehatzetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta hezkuntza-esperientziatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak konpontzeko.

Oinarrizko konpetentziatzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarreraren multzo" gisa ulertzeko adostasun komuna dago.

Ebaluazio Diagnostikoa 2017 (ISEI-IVEI, 2018:14)

2009an hasi zenetik, Ebaluazio diagnostikoaren antolaketa bi zatitan dago egituratuta:

- batetik, **zati finkoa**. Bertan, izaera instrumentalena duten hiru konpetentzien *-euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* eta *matematikarako konpetentzia*– ebaluazioa edizio guztietan egiten da, betiere, egoera ahalik eta zehatzen eta iraunkorren neurtzeko.

- Bestetik, **zati aldakorra**. Bertan, indarrean den araudian definitutako gainerako konpetentziak elkarren jarraian ebaluatzen dira.

Jarraian datozen tauletan, batetik, edizio bakoitzean ebaluatutako konpetentziak datoz jasota eta probak zer formatutan aplikatu diren (papera edo ordenagailua) eta, bestetik, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeetan aplikazioak nola antolatuta diren.

Ebaluazio Diagnostikoa 2017 (ISEI-IVEI, 2018:14)

		OINARRIZKO KONPETENTZIAK	ED09	ED10	ED11	ED13	ED15	ED17
KANPOKO EBALUAZIOA	Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.		✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.		✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia				✓		✓	✓
	Matematikarako konpetentzia.		✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia. ¹		✓			✓	✓	
	Zientziarako konpetentzia							✓
	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.			✓		✓		
	Ikasten ikasteko konpetentzia.					✓		
	Informazioaren trataera eta konpetentzia digitala.						Pilotua	

Erredimendu mailak

LHko 4. maila	EUSKARAZKO H.K.	GAZTELANIAZKO H.K.	INGELESEZKO H.K.
Hasierako maila	Hasierako mailan dagoen ikasleak komunikaziorako konpetentzia mugatua du eta nolabaiteko zailtasunak ditu euskarazko testuak ulertzeko. Gai da ipuinetan, albiste laburretan, liburuxketan eta antzeko gertuko ahozko eta idatzizko testuetan datuak identifikatzeko. Era berean, testu laburretan eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen ditu.	Hasierako maila honetan dagoen ikasleak nolabaiteko zailtasuna du ahozko eta idatzizko testuak (informazio-testuak, egunerokoak, ipuinak, albisteak..) ulertzeko. Gai da gertuko testu errazetako informazioa identifikatzeko eta ideia orokorra ateratzeko.	Maila honetan dagoen ikasleak hasierako hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia du; hitz solteak erabiltzen ditu komunikatzeko eta ulertaraztea kostatu egiten zaio. Entzumenean eta irakurmenean, gai da gaia identifikatzeko eta informazio espezifikoren bat ateratzeko testu errazetan eta ezagunetan. Idazmenean zailtasunak ditu adierazteko eta normalean hitz solteak erabiltzen ditu, eredu kopiatzen du edo beste hizkuntzaren bat erabiltzen du. Gramatika, ortografia eta lexiko arloko ezagutza urria du dagokion ikasmilarako.

Erredimendu mailak



Erdi-maila	<p>Erdiko mailan dagoen ikasleak matematika-hizkuntza egokia erabiltzen du. Gainera, matematika-gai ezberdinak elkarrekin erlazionatzeko gai da, eta ikasmailari dagozkion ariketa klasikoak segurtasunez ebazten ditu. Informazio-iturri desberdinetako errepresentazioak interpretatu eta erabil ditzake eta haietatik zuzeneko ondorioak atera. Gai da idatzi laburrak garatzeko bere interpretazioak, emaitzak eta arrazoiketak bilduz. Normalean konexio-teknikak erabiltzen ditu (elkarren artean lotzen ditu ezagutza eta prozedura matematiko ugariak), eta horri esker, nolabaiteko zailtasuna duten problemak ebaz ditzake, baina oraindik ere testuinguru ezagunetan.</p>	<p>Maila honetan dago, hasierako mailan deskribatutako trebeziez gain, iragarpenak egiteko edo azalpenak emateko kontzeptu zientifikoak erabiltzen dituen ikaslea. Ikerketa zientifikoaren bidez erantzun daitezkeen galderak ezagutzen ditu eta ikerketa zientifikoan gertatzen denaren xehetasunak identifikatzen ditu. Ondorioak egitean, datuetako informazio garrantzitsua aukeratzen du. Fenomeno zientifiko bat azaltzeko eredu formal sinpleak erabiltzen ditu eta ondorio bakar baterako kausa ugari edo kausa bakar batek sortutako ondorio ugari detekta ditzake. Gauzak zergatik gertatzen diren jakiten saiatzen da. Esperimentu sinpleak planea ditzake, baina laguntza behar du emaitzen loturak ondorioztatzeko.</p>
-------------------	--	--

Erredimendu mailak

Maila aurreratua	<p>Maila aurreratuan dagoen ikasleak, matematikaren arlo ezberdinak erlazionatzeaz gain, arrazoiketa landuak ere erabiltzen ditu, gogoetatsua da, logikaz argudiatzen du, eta gai da problema originalak ebazteko. Normalean hausnarketa-teknikak erabiltzen ditu (erabilitako prozesua aztertzen du eta beste problema batzuk ebazteko edo proposatutako problemaren emaitza hobetzeko baliagarri izan ditzakeen ondorioak ateratzen ditu). Horrek esan nahi du planteatutako egoerak sakontasunez ulertzen dituela. Gainera, sormena izan ohi du, problema baten elementu matematikoak identifikatzeko eta ebazpenean lotura egokiak ezartzeko.</p>	<p>Maila honetan dago, hasierako eta erdiko mailan deskribatutako trebeziez gain, iragarpenak egiteko, datuetan oinarrituta errealitateari buruzko azalpenak emateko edo oinarri zientifikoak duten ondorioak ateratzeko kontzeptu zientifikoak eta eredu sinpleak erabiltzen dituen ikaslea. Kausaren azalpen posibleak sortzen eta egiaztatzen ditu. Ikerketa zientifikoak eta esperimenduak aztertzen ditu, esku hartzen duten aldagaiak kontrolatuz. Grafiko zailak interpretatzen ditu. Argudio edo deskribapen zientifikoak komunikatzen ditu zehaztasunez eta xehetasunez. Zenbait aldagai dituzten problemak ebazteko estrategiak aplikatzen ditu.</p>
-------------------------	---	--



Matematikako konpetentzia emaitzak

Egonkortasun handiagoa DBHn



2011tik behera; 17ko hasierako mailak du ehuneko altuena eta maila aurreratuko ehuneko baxuena

Zientzietako konpetentzia



Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

2.2.3. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia


Grafikoak ikusita, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari buruz ondorio hauek nabarmentzen dira:

- 2009tik egindako ebaluazio Diagnostikoen ia edizio guztietan konstantea izan da bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn, ikasleen % 30 baino gehiago hasierako mailan egotea.
- Konstantea da, halaber, hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa beti handiagoa dela DBHko 2. mailan LHko 4.ean baino.
- Gainera, ikus daiteke, 2010etik aurrera, hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak gora egin duela etengabe Lehen Hezkuntzan % 37,4ra iritsi arte eta DBHn % 45,6ra. Era berean, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoak etengabe murriztu da.
- Badirudi bi joerak moteldu egin direla edo baita gelditu ere 2015 eta 2017 artean.


Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

2.2.3.a. grafikoak: LHko 4. maila. Emaita orokorren eta ikasleen ehunekoaren bilakaera hasierako mailan eta maila aurreratuan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




2.2.3.c. grafikoak: LHko 4. maila. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailaren arabera euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

2.2.3.b. grafikoak: DBHko 2. maila. Emaita orokorren eta ikasleen ehunekoaren bilakaera hasierako mailan eta maila aurreratuan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



2.2.3.d. grafikoak: DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailaren arabera euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

2.2.4. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziari dagokionez, egoera oso desberdina da:

- Hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa, salbuespen gutxi batzuetan izan ezik, % 15 baino txikiagoa izan da bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn. 2010etik aurrera, nabarmen murriztu


da Lehen Hezkuntzan hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoa. DBHn, aldiz, nahiko egonkor mantentzen da.

- Era berean, Lehen Hezkuntzan lortutako batez besteko puntuazioaren pixkanakako galera ikus daiteke; DBHn, aldiz, batez besteko puntuazioa mantendu egiten da.


Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia

LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

2.2.4.a. grafikoa: LHko 4. maila. Emaita orokorren eta ikasleen ehunekoaren bilakaera hasierako mailan eta maila aurreratuan gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




2.2.4.c. grafikoa: LHko 4. maila. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailaren arabera gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.




DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

2.2.4.b. grafikoa: DBHko 2. maila. Emaita orokorren eta ikasleen ehunekoaren bilakaera hasierako mailan eta maila aurreratuan gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



2.2.4.d. grafikoa: DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoaren bilakaera errendimendu mailaren arabera gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia



Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, derrigorrezko bi etapetako bakoitzeko joera guztiz desberdina da: Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek hizkuntza horretako konpetentziaren pixkanakako galera erakusten dute; aldiz, DBHko 2. mailan, puntuazioetan gorakada izan da.

Lehen Hezkuntzan, azken edizioan, hasierako mailan ikasleen ehuneko

txikiagoa egon da, baina baita maila aurreratuan ere, beraz, konpetentziaren erdiko mailan ikasleen kontzentrazio handia dago, 2017an % 66,1era artekoa, hain zuzen ere.

DBHko 2. mailan, maila aurreratuan ikasleen igoera txiki bat izan da, hasierako maila gainditzen ez dutenen jaitsiera arinarekin batera. Edonola ere, datuak oso egonkorak dira.

Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia



Joera orokorraren analisia

2.2.6. Joera orokorraren analisia


Oinarrizko bi etapek joera oso desberdina dute:

- Lehen Hezkuntzako 4. mailan, emaitza orokorrek okerrera egin dute 2017an ebaluatutako bost kompetentziatik lautan.
- aldiz, DBHko 2. mailan, eboluzioa positiboagoa da, bostetik hirutan hobekuntza izan baita, eta kasu batzuetan hobekuntza nabarmena.

Oinarrizko irakaskuntza eta derrigorrezkoa osatzen duten etapetako bakoitzean neurtutako eskolako mailaren kompetentziaren bilakaerak egoera


kontrajarria erakusten du: Lehen Hezkuntzako 4. mailan emaitzak pixkanaka okerragoak dira eta DBHn, berriz, hobeak, kasu batzuetan askoz hobeak.

2.2.6.a. grafikoa: ED15 eta ED17ko emaitzen arteko aldea oinarrizko irakaskuntzan eta aldeen arteko adierazgarritasuna.




Joera orokorraren analisia

2.2.6.b. grafikoa: LHko 4. mailan. Emaitzen bilakaera kompetentzia guztietan.




Joera orokorraren analisia

2.2.6.c. grafikoa: DBHko 2. mailan. Emaitzen bilakaera kompetentzia guztietan.




Joera orokorraren analisia

3.1.c. grafikoa: ED17.DBHko 4. maila. Ikasleen ehunekoaren banaketa errendimendu mailaren arabera ebaluatutako bost kompetentzietan.



Joera orokorraren analisia

3.1.d. grafikoa: ED17. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoaren banaketa errendimendu mailaren arabera ebaluatutako bost kompetentzietan.



Zenbait eragileren azterketa egiten da EDn

3.1. Ikasle gehienek gainditzen dituzte gutxieneko errendimendu-mailak

3.2. Emaitzetan, famili inguruneak eragina du, nabarmena gainera; ordea, ikastetxearen hezkuntza-ekintza gai izan daiteke ikasleek duten ISEK mailaren arabera esperotakoa baino emaitza hobekak izan ditzaten lortzeko

3.3. Euskal hezkuntza-sistema oso ekitatiboa da eta kompetentzietan errendimendu maila altua eta baxua duten ikasleen arteko aldea egonkor mantentzen da

3.4. Gure sistemak ikasle errepikatzaileen % 10 inguru ditu Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta % 20 DBHren erdian

3.5. Kompetentzia guztietan nabarmena da ia ikasle etorkin guztiek bertako ikasleak baino emaitza okerragoak dituztela bi taldeen arteko aldea murrizten doan arren

3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietako emaitzak ikuspegi orokorrago batetik neurtu behar (ED, 71-77 or.)

- Elebitasunaren aurrerapenaren edo atzerapenaren ikuspegitik, euskara gutxiengoaren hizkuntza den testuinguruan, (...) oraindik diglosia-egoeran eta gutxiengoan jarraitzen duela kontuan hartuta.
- Erreferentzia maila: ikasle guztiek B2 maila lortzea Oharen amaieran, euskaraz zein gaztelaniaz.
- Eusrararekiko konpromiso bat da, eskakizun handikoa gaztelania erabiltzeko probabilitate handiagoa dagoen gizarte-testuinguruetan.

3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

Elebitasun tipologia

- Euskaraz eta gaztelaniaz gaitasunik gabeko ikasleak: % 8,47 dira Lehen Hezkuntzan eta % 10,87 DBHn.
- Ikasle erdaldun elebakarrak: elebidun orekatuen kolektiboa gainditzen du, kontuan izanik azken honek gehiengoa osatzen zuela 2009 eta 2013 urte bitartean; DBHn, % 25 ingurukoa izan da 2009 eta 2013 urte bitartean.
- Ikasle euskaldun elebakarrak: gutxiengoa osatzen duen kolektiboa: LH 428 eta DBH 289 ikasle; 2010ean %7 baina gero % 2 inguru.
- Ikasle elebidun orekatu goi mailakoak (erdi-maila bi hizkuntza ofizialetan):% 25era iritsi zen 2009an eta 2010ean; igo egin zen 2013an, eta jaitsi egin zen ondoren 2015ean, eta ehunekoa bera izan zen 2017an ere. DBHko 2. mailan % 25etik gorakoa izan zen 2009an; igo egin zen 2010ean eta ondoren behera egin zuen gutxika 2015era arte, eta mantendu egiten da 2015 eta 2017 urte bitartean.


3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

Elebitasun tipologia

- Ikasle elebidun orekatu goi mailakoak (maila aurreratua lortzen du bi hizkuntzetan): Lehen Hezkuntzan, igo 2009tik 2010era, baina jaitsi 2013an, eta mantendu 2015ean; zerbait jaitsi da 2017an. DBHn, 3 puntu igo 2009 eta 2010 urte bitartean, eta ondoren gorabeherak.
- Ikasle erdal elebidunak (Erdi-maila dute euskarari eta maila aurreratua gaztelan): LHn %10; DBHn ehuneko handiagoak.
- Ikasle euskal elebidunak (Maila aurreratua euskarari eta erdi-maila gaztelan): DBHko ehunekoak beti egon dira Lehen Hezkuntzako azpitik; LHn %10 eta DBHn gutxiago.

3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

3.6. grafikoa: ikasleen ehunekoaren bilakaera elebitasunaren tipologiaren arabera.



3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

Elebitasun-tipologiak erlazio nabarmena du zenbait aldagairekin eta, aldi berean, aldagai horiek eragin handia dute zientzietarako eta matematikarako *konpetentzietako* emaitzetan, eta *ingelesezko hizkuntza-komunikaziokoan*. Izan ere, ikasleen ISEK mailak, adin-egokitasunak eta jatorriak baldintzatu egiten dute, neurri handi batean, ikasleen hizkuntza-konpetentzia bi hizkuntza ofizialetan:

- Ez euskararen ez gaztelanien gaitasunik ez duten ikasleak dira ISEK maila txikiena dutenak, eta jatorriz etorkinak diren ikasleen eta errepikatzeen ehunekorik handiena dutenak. *ingelesezko hizkuntza-komunikazioan, matematikarako eta zientzietarako konpetentzietan* ere emaitza okerrenak dituztenak dira.
- Ikasle erdaldun elebatarrek aurrekoen antzeko profila dute, hain muturrekoak ez diren balioekin, ordea.

- Beste muturrean, ikasle elebidun orekatu goi-mailakoak daude: ISEK maila altuena dute, errepikatze-tasarik txikiena jatorriz etorkinak diren ikasleen ehunekorik txikiena. Emaitza akademiko onenak lortzen dituzten ikasleak dira.
- Tartean, ikasle elebidun orekatuak daude, erdi-mailako balioekin ia aldagai guztietan. Ikasle erdal elebidunak ere, ISEK maila hobearekin, adin-egokitasun tasa handiagoarekin eta jatorriz etorkinak diren ikasleen ehuneko txikiagoarekin, euskara familia-hizkuntza dutenen ehuneko txikiagoarekin, ordea.

Deigarria da, orokorrean, elebidunen zazpi kategorien karakterizazioa, bai Lehen Hezkuntzan bai DBHn, ia aldaezin mantentzea urteen joanean, aztertutako zazpi kategorien pisua aldatu izan den arren 2009 eta 2017 urte bitartean.


3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

Azken finean, analisi honek aukera ematen du hezkuntza-sistemak elebitasunari egindako ekarpena ebaluatzeko, Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legean, helburutzat zuena. Adibide gisa hartzen baditugu ED 2017ko DBHko 2. mailako ikasleen datuak, ondokoa ikusten da:

- Familia-hizkuntza euskara duten ikasleak ez dira % 20ra iristen (3.400 pertsona inguru). Beraz, gehiago handiak (14.200 pertsona inguru, % 80,8) ez du euskara familia-hizkuntzatzat.
- Aldiz, ia 9.600 ikaslek, hau da, ikasle guztien erdia baino zerbait gehiagok (% 54,7) gaintzen dute euskarako hasierako maila: familia-hizkuntza euskara duten ikasleen hiru laurdena dira, eta familia-hizkuntza euskara ez duten ikasleen erdia.
- Beraz, agerikoa da hezkuntza-sistemak elebitasunari egin dion ekarpena, ikasle elebidunen kopurua ia hiru aldiz handiagoa baita familia-hizkuntza euskara duten ikasleen aldean.


3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

3.6.2. grafikoa: euskararen galera eta irabazien bilakaera.



3.6. Elebitasuna aurrera doa hezkuntza-sistemari esker, baina azkeneko edizioetan, moteldu egin da aurrerapen hori

3.6.2. grafikoa: euskararen galera eta irabazien bilakaera.



3.6.3. Hezkuntza-sistemak, bakarrik, ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna

Hezkuntza-sistemaren ekarpenak, oso adierazgarria izan arren, bakarrik ezin du bermatu ikasleen elebitasuna. Izan ere, euskal hezkuntza-sistemara milaka hiztun berri gehitzen dira urtero, maila guztietan, bai Lehen Hezkuntzan bai DBHn. Baina kontuan hartzen badugu EAEko eremu soziolinguistiko desberdinetan euskararen egoera minoritarioa eta minorizatua, eta lehen hizkuntzak eta familia-hizkuntzak haien seme-alaben elebitasun mailan duten eragina, euskal hezkuntza-sistemak, bakarrik, ezin du bermatu ikasle guztiak elebitasunera gehitzea. Era berean ezin du bermatu, galerak egon ez daitezten familia-hizkuntza euskara duten ikasleen artean, ez eta D ereduan ere.

Hasieratik kontuan hartzen badugu, euskararen edota gaztelanian, hasierako mailan dauden ikasleek ez dutela hezkuntza-sistemak ezarritako elebitasunaren helburua lortzen, ikasle elebidunen tipologiako lehenengo hiru kategoriak (ikasle gaitasunik gabeak ez euskararen ez gaztelanian, ikasle erdaldun elebakarrak eta ikasle euskaldun elebakarrak) adierazletzat hartu beharko lirateke, hain zuzen ere ikusteko hezkuntza-sistemak, bakarrik, ez duela elebitasunaren helburua lortzen:

- DBHn, ez dute lortzen elebitasunaren helburua A geruza publikoko % 98,2k, B geruza publikoko % 77,7k eta itunpeko A geruzako % 77,6k, ez eta itunpeko B geruzako % 57,8k ere. D ereduan ere ez da bermatzen D geruza publikoko % 43,6k eta itunpeko D geruzako % 32,5k elebitasunaren helburua lortzea.
- Lehen Hezkuntzan hobetu egiten da egoera neurri batean; elebitasunaren helburua, ordea, lortu gabe jarraitzen dute A geruza publikoko % 91,2k, itunpeko A geruzako % 66,6k eta B geruza publikoko % 59,4k. Aldiz, itunpeko B geruzako % 53,3k lortu egiten dute helburua, eta baita D geruza publikoko % 61,5k eta itunpeko D geruzako % 71,3ek ere.

3.6.3. Hezkuntza-sistemak, bakarrik, ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna

Elebitasun-tipologian ikasleak banantzen diren zazpi kategorietan hain ezaugarri desberdinak ikusita, eta ikasle elebidun mota desberdinak bereizitako geruza desberdinetako ikastetxeetan eskolatzen direla kontuan hartuta, beharrezkoa da erantzun malguak eta egokituak ematea ahalbidetuko duten tresnak eta neurriak diseinatzea.

3.6.3. Hezkuntza-sistemak, bakarrik, ezin du bermatu ikasle guztien elebitasuna

Argi geratu da, sare publikoan, garrantzizkoak direla adierazitako aldaketak eta baliteke eragina izatea geruza horren puntuazio-galeran. Gogoan izan behar dugu errepikatze-aldagaiak eragiten duela arrailarik handiena; 40 puntu baino gehiago kompetentzia honetan, 2017an, eta familia-jatorria aldagaiak jarraitzen dio, 24 puntuko arrailarekin. Dena den, itunpeko sarean gertatutako aldaketa horiek ez dira hain nabarmenak ez eta hain garrantzizkoak ere, geruza publikoan gertatu direnen aldean.

		D PUBLIKOA		D ITUNPEKOA	
		2009	2017	2009	2017
IKASLEAK	% sistemaren guztizkoaren gainean	39,3	47,3	20,6	26,3
	Ikasleen kopurua	6.919	10.084	3.626	5.604
	% sarean	79,3	90,7	41,5	54,8
ADIN-EGOKITASUNA	EGOKIAK	91,8	89	96,2	95,6
	EZ EGOKIAK	8,2	11	3,8	4,4
JATORRIA	% ETORKINAK geruzan	4,9	10,7	2,5	3,1
ISEKa	% maila baxua	17,5	31,6	3,6	15,6
	% maila ertain-baxua	36,1	26,5	11,1	24,9
	% maila ertain-altua	28,7	23,4	35,7	29,0
	% maila altua	17,8	18,5	49,6	30,5
	Batez besteko ISEK geruzan	0,14	-0,19	0,20	0,23
FAMILIA HIZKUNTZA	% ikasle euskaldunak	24,5	28,7	34,7	42,6
	% ikasle erdaldunak	75,5	71,3	65,3	57,4
HIZKUNTZA-ERABILERA	Indize globala	3,7	3,6	4,0	4,0

JARDUERA:

Irakurri eta hausnartu modu kritikoan txostenaren ondorioak. Adostasunerako BI puntu aurkitu, eta desadostasunerako beste BINA, ARRAZOIAK EMANEZ:

ADOS NAGO ONDORENGOEKIN:

ARRAZOIAK:

EZ NATOR BAT ONDORENGOEKIN:

ARRAZOIAK:

Europako Hizkuntzen portofolioa

Portofolio Europeo de las Lenguas (PEL)

- Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioaren **Europako Erreferentzia Marko Komunean** oinarritzen da PEL edo EHPa.
- Norbanakoaren da portafolioa
- Norbanakoaren hizkuntza konpetentzia eta bere kulturarteko esperientziak biltzen ditu eta hizkuntzak ikasteko baliabide izan nahi du
- Osagai nagusiak:
- **Hizkuntzen pasaportea.** Ahal dela nolabaiteko ziurtagiriz bermatutako hizkuntza konpetentzien egoera ziurtatzen du
- **Hizkuntza biografia:** Hizkuntza ezberdinetan bizitu dituen esperientzien bilduma da eta hizkuntzen irakaskuntzarako baliabide lagungarria izan behar du.
- **Dosierra** non norbanakoaren lanak biltzen diren eta (atzerri) hizkuntzetan lortutako konpetentzien agiri eta tituluak, CVak biltzen diren.
- **Material osagarriak:** maila ezberdinen azalpenak eta eta hizkuntza konpetentzien ebaluaziorako baliagarria del **plantilla** bat, europar herrialde guztietan onartutako irizpideekin egin izan dena.

Portofolioaren helburuak

- European zehar **mugikortasuna** erraztu
- **Eleaniztasunaren** eta **kulturaniztasunaren** balioa azpimarratu
- Ikasteko **autonomia** eta **autoebaluazioa** bultzatu
- Ikasleak motibatu hizkuntzak irakastearen balioa errekonozituz
- Hizkuntza eta kultura konpetentziei buruzko informazioa eman. (Atzerrian lanerako, ikasketetarako, etc.

ZER DA HIZKUNTZA BATEN B2 MAILA?

Erreferentziatzko Europar Markoaren arabera B2 mailak edo Maila aurreratuak Europako Kontseiluaren hirugarren zehaztapena islatzen du. Maila hori honela deskribatu zen: Gaitasun operatibo mugatua. Maila honetan ikaslea testu konplexuen ideia nagusiak ulertzeko gai da; testu zehatzak zein testu abstraktuak ulertu behar ditu, eta ikaslearen espezialitateko testu teknikoak ere.

Ondoko koadroan agertzen den legez, B2 mailako ikasleek bertako hiztunekin ahal dute nahikoa naturaltasun eta jariakortasunez hitz egin; hortaz, komunikazioa aurrera eramaten da hiztunek ahalegin eskerga egin barik. Bestalde, maila honetan ikasleek zenbait gairi buruzko idazki zehatz eta argiak ahal dituzte ekoiztu; halaber, ahal dute gai orokorreari buruzko norberaren ikuspuntua edo iritzia defendatu, emandako aukeren alde edo kontrako argudioak erabiliz.

Datorren koadroan B2 maila agertzen da Erreferentziatzko Markoak markatutako mailen artean:

C2	5. MAILA PROFICIENCY (INGELESA). Erabiltzaile gaitua.
C1	4. MAILA EGA (EUSKARA). Erabiltzaile gaitua edo kompetentea.
B2	3. MAILA. Erabiltzaile bere kabuzkoa. Testuen ideia nagusiak ulertzen ditu gai konkretu eta abstraktuei buruz, bere espezialitateko eztabaida teknikoak barne. Elkarrizketa batean parte hartzeko gai da erraztasun nahikoz eta arazorik gabe; jatorrizko hiztunekin tentsiorik sortu gabe hitz egin dezake. Testu argi eta zehatzak ekoizten ditu hainbat gairi buruz eta gai bati buruzko bere iritzia adierazteko gai da, beste ikuspegiak buruzko abantailak eta desabantailak azalduz.
B1	2. MAILA. Erabiltzaile bere kabuzkoa.
A2	1 MAILA. Oinarrizko erabiltzailea.
A1	HASIERAKO MAILA. Oinarrizko erabiltzailea.

MAILA GAINDITZEN DUEN IKASLEA HONAKO HAU EGITEKO GAI DA:

Irakurmena	<ul style="list-style-type: none"> - Gaur egungo artikuluei buruzko arazoak zein txostenak ulertzeko. - Autoreen jarrera edo iritzi anitzak ulertzeko. - Literatura garaikideko prosan idatzizko testuak ulertzeko.
Idazmena	<ul style="list-style-type: none"> - Bere interesekin lotutako gai askori buruzko testuak idazteko. - Idazlan edo txostenak idazteko, non informazioa azaltzen den edo ikuspuntu zehatz baten alde edo kontrako argudioak azaltzen diren. - Zenbait eginkizun edo esperientziak nabarmentzen diren gutunak idazteko.
Entzumena	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzaldi luzeak ulertzeko edo eztabaiden konplexuen ildo jarraitzeko, betiere gaia ezaguna izanik. - Komunikabideetako albisteak eta saiokak edo euskara batuaz erabiltzen dituzten pelikulak jarraitzeko.
Mintzamena	<ul style="list-style-type: none"> - Bere inguruko gaiei buruzko deskripzio argiak egiteko, zenbait aukera kontuan izanda, eta horien abantailak eta eragozpenak azaltzeko. - Naturaltasun eta jariotasunez elkarrizketetan parte hartzeko; hortaz, arazo gabeko komunikazioa ahal du aurrera eraman bertako hiztunekin. - Testuinguru ezagunetako eztabaidetan ahal du parte hartu bere iritzi edo ikuspuntua emanez.
Hizkuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Orokor eta inguruko gaiei buruzko hiztegi zabala edukitzeko. - Zalantza lexikoak izan arren hitzak errepikatzea saihesten saiatzeko. - Dituen akats gramatikalek ez diote komunikazioa eragozten, gutxi eta
ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> - ez-sistematikoak baitira. - Kohesio eta koherentzia egokia du eta idazteko arauak errespetatzeko (gramatikan, ortografian, etab.).

EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA

ERREFERENTZIA MAILA BATERATUAK – ESKALA OROKORRA

Erabiltzaile gaitua	C2 Menderatze-maila	Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jariotasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren ñabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.
	C1 Gaitasun operatibo eraginkorra	Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jariotasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.
Erabiltzaile independentea	B2 Aurreratua	Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoenak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hiztunekin mintza daiteke, jariotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrei buruzko ikuspegi jakin bat aldezteko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.
	B1 Atalasea	Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritziak labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko.
Oinarrizko erabiltzailea	A2 Tartekoa	Bereziki esanguratsuak dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiari buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere.
	A1 Hasierakoa	Gai da eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertzeko eta erabiltzeko, eta baita berehalako beharrak asetzera bideratutako esaldi soilak osatzeko ere. Badaki bere buruaren eta besteren aurkezpena egiten, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarrizko informazio pertsonala ematen eta eskatzen. Oinarrizko harremanak izan ditzake, baldin eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.

BIBLIOGRAFIA

- ▣ BAKER, C. (1993) *Foundations of bilingual education and bilingualism*, Clevedon: Multilingual Matters.
- ▣ CENOZ, J. (2009), *Towards Multilingual Education. Basque Educational Research from an International Perspective*. Clevedon : Multilingual Matters.
- ▣ CENOZ, j (ED.) (2008) *Teaching through Basque*, Clevedon: Multilingual Matters.
- ▣ CUMMINS J. (1979) "Interdependencia lingüística y desarrollo educativo de los niños bilingües", *Infancia y aprendizaje*, 1983, 21, 37-61.
- ▣ Cummins, J. (2005). "La hipótesis de la interdependencia 25 años después: La investigación actual y sus implicaciones para la educación bilingüe. En D. Lasagabaster y J. M. Sierra (eds.). *Multilingüismo y multiculturalismo en la escuela*. Barcelona: Horsori, 113-132.
- ▣ Cummins, J. (2008), "Teaching for Transfer: Challenging the Two Solitudes Assumption in Bilingual Education", in N. Hornberger (Ed.) *Encyclopedia of Language and Education. Volume 5: Bilingual Education*. Springer.
- ▣ European Commission (2007 final report), High level group on multilingualism: http://ec.europa.eu/education/policies/lan/doc/multireport_en.pdf.
- ▣ GARCIA-AZKOAGA, I. & IDIAZABAL, I. (Eds.) (2015) *Para una ingeniería didáctica de la enseñanza plurilingüe*. Bilbao: Servicio publicaciones de la UPV/EHUK
- ▣ GARDNER, N. (2005) *The Basque Language in Education in Spain*. Ljouwert/Leewarden: Mercator-Education On www.mercator-education.org. in *Education in the Basque Autonomous Community*.
- ▣ GENESSE F. (1987). *Learning through two languages*, Cambridge, M.A.: Newbury House.
- ▣ IDIAZABAL I. (1995) La reforma en la Escuela Vasca: ¿Qué hay de nuevo? *RIEV. Revista Internacional de Estudios Vascos*, 43, Tomo XL Nº 2, 345-360 ISSN: 0212-7016
- ▣ IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M. (1996) Análisis de estrategias argumentativas en escritos de escolares bilingües del País Vasco. in M. Pérez Pereira (Ed.) *Estudios sobre la adquisición del castellano, catalán, euskera y castellano*. Universidade de Santiago de Compostela, 425-437
- ▣ Idiazabal, I. (2000) Hizkuntza trebetasunen transferentzia programa elebidunetan, *Ikastaria*, 12, 143-154.
- ▣ IDIAZABAL I. & LARRINGAN, L.M. (2004) " La competencia discursiva en la didáctica de las lenguas y del plurilingüismo » *BILINGLATAM 2004 First International Symposium about Bilingualism and Bilingual Education in Latin America. Symposium Proceedings* », Buenos Aires: ESSARP, 2004, 143-152.
- ▣ IDIAZABAL, I. & MANTEROLA, I. (2009), "Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa", *Euskera*, 54, 2-1. 463-504.
- ▣ IDIAZABAL, I. & DOLZ, I. (2013), "Diversidad lingüística y formación plurilingüe" (Introducción) in J. Dolz & I. Idiazabal (eds.) *Enseñar (lenguas) en contextos plurilingües*. Bilbao: Servicio editorial de la